den akordiora iristeko. Data hori igarota administrazioak inolako akordiorik lortu ez dela jakiten badu, aipatutako bigarren xedapen gehigarriko hirugarren idatz-zatian xedatutakoaren arabera jokatuko du.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Errekurtsoak: Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Aginduaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezar diezaiokete interesdunek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, bi hilabeteko epean.

***Bigarrena.–*** Ondorioak: agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasita izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 21a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

por el que se crea en la Comunidad Autónoma de Euskadi la Oficina Pública, su Comité y la Inspección de Elecciones Sindicales. En el caso de que transcurrida dicha fecha se constate por la Administración que no se ha alcanzado acuerdo alguno, se procederá según lo establecido en el apartado tercero de dicha disposición adicional segunda.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** Recursos: contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

***Segunda.–*** Efectos: la presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de mayo de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**3786**

AGINDUA, 2008ko maiatzaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sareaz kanpoko ikastetxe pribatuei diru-laguntzetarako deia egiten zaie hezkuntza arloko Komunikazio eta Informazioaren Teknologien inguruko proiektuak egiteko.

Hezkuntza-sistemari planteatzen zaizkion eskakizunen ondorioz, hainbat proiektu gauzatu behar dira, hezkuntza-sistemako erabiltzaileek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabil ditzaten eta lortu daitezkeen abantailez baliatuko direla bermatu eta hobetzeko.

Agindu honen xedea da oinarrizko tresnak eskuratzea finantzatzea, itunpeko ikastetxeek aipatu proiektu-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**3786**

ORDEN de 21 de mayo de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan subvenciones destinadas a los centros concertados no pertenecientes a la red de centros integrales de Formación Profesional, para la materialización de proyectos en relación con las Tecnologías de la Información y la Comunicación en el ámbito educativo.

Las exigencias que se le plantean al sistema educativo demandan proyectos en la línea de asegurar y mejorar el acceso de sus usuarios a las ventajas que se pueden obtener mediante el uso de las Tecnologías de la Información y la Comunicación.

Mediante la presente Orden se pretende financiar la adquisición de instrumentos básicos en orden a la

ak gauzatu ditzaten. Horrela, zentzu handiagoa emango zaie aurreko urteetan ordenagailuak erosteko eta sareak eta konektibitatearen inguruko proiektuak gauzatzeko deialdiei.

Ondorioz, kontuan hartuta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren VI. titulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan diru-laguntzak emateko moduari buruzkoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko Aurrekontu Orokorrak onartu dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legea, honako hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.–*** Xedea.

1.1.– Deialdi honen xedea da EAEko Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sareaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuei dei egitea, Informazio eta Komunikazioaren Teknologiekin zerikusia duten hezkuntza arloko egitasmoak gauzatzeko diru-laguntzak eska ditzaten.

1.2.– Diru-laguntzaren xede izan daitezkeen kontzeptuak I. eranskinean ageri dira.

1.3.– Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzeko 1.195.495,57 euro jarri dira, eta diru-kopuru hori eguneratu ahal izango da, indarrean dauden arauek aurreikusten duten kreditu-loturen edo aurrekontu-aldaketen erregimenaren arabera. Horren berri Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emango du ebazpen baten bitartez.

***2. artikulua.–*** Onuradunak.

2.1.– Deialdi honen bitartez emango diren laguntzetara 2007-2008 ikasturtean bildu ahal izango dira Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sareaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuen titularrak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Agindu hau argitaratzen den egunaren aurreko lau urteetan hezkuntza-itunei buruzko araudian aurreikusitako araurik haustearren zehapenik jaso ez izana.

b) Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zergak ordainduta edukitzea. Hori egiaztatzeko bete egin beharko dute Hezkuntza-itunen erregelamendua onartzeko irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorrean eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak horretarako bereziki ezarritako araudian ezarritakoa.

2.2.– Dena den, agindu honek arautzen dituen laguntzetara ezingo dira aurkeztu, dagokion zehapenak ezarritako denboran, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Lege-

realización de los proyectos referidos por parte de los centros concertados confiriendo así un mayor sentido a anteriores convocatorias de subvención para compra de ordenadores y para la materialización de proyectos de redes y conectividad.

De conformidad con lo establecido en las disposiciones contenidas en el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, referente a la regulación de las subvenciones en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008.

RESUELVO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

1.1.– Es objeto de la presente Orden convocar ayudas a los centros privados concertados de la CAPV no pertenecientes a la red de centros integrales de Formación Profesional para posibilitar la materialización de proyectos en relación con las Tecnologías de la Información y la Comunicación en el ámbito educativo.

1.2.– En el anexo I se indican los conceptos que son objeto de subvención.

1.3.– La cantidad destinada para la financiación de las ayudas reguladas en la presente Orden es de 1.195.495,57 euros, que podrá ser objeto de actualización, conforme el régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. A esta circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios.

***Artículo 2.–*** Beneficiarios.

2.1.– Podrán acogerse a las ayudas que se otorgarán mediante la presente convocatoria los titulares de Centros Privados Concertados el curso 2007-2008 no pertenecientes a la red de centros integrales de Formación Profesional y que cumplan los siguientes requisitos:

a) No haber sido sancionado en los cuatro años anteriores a la fecha de publicación de la presente Orden por cualquiera de las infracciones previstas en la normativa reguladora de los conciertos educativos.

b) Estar al corriente del pago de sus obligaciones sociales y tributarias, acreditándolo de conformidad con lo previsto en la disposición transitoria tercera del Decreto 293/1987 de 8 de septiembre, por el que se aprueba el reglamento de conciertos educativos y la normativa establecida al efecto por el Departamento de Hacienda y Administración Pública.

2.2.– No podrán concurrir, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, a las ayudas reguladas por la presente Orden quienes se hallen incursos en algunas de las causas establecidas en el apartado 5 del

aren testu bateratuaren 50. artikuluko 5. paragrafoak –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak– ezarritako arrazoiren baten eraginpean daudenak.

2.3.– Izaera bereko laguntza edo diru-laguntzak direla eta, onuraduna itzultze- edo zigortze-prozeduraren baten pean egonez gero eta izapideak egiten ari badira, itzultze- edo zigortze-prozedurak amaituta egon beharko du laguntza jasotzeko.

***3. artikulua.***– Diruz laguntzeko moduko ekintzak.

Agindu honetan arautzen diren laguntzak I. eranskinean adierazitako eragiketa eta gastuen kostua ordaintzeko erabiliko dira, baldin eta gastua 2007ko urriaren 16tik 2008ko irailaren 10era bitartean sortu bada.

Nolanahi ere, ikastetxeek deialdi honetara aurkeztutako ekintzek bat etorri behar dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren helburuekin. Hortaz, diruz lagundutako kontzeptuek bat etorri behar dute eranskinean adierazitako estandarrekin.

***4. artikulua.***– Eskabideak eta agiriak.

4.1.– Deialdi honetan araututako gastuetarako diru-laguntzen eskabidea idatzi baten bidez egingo da. Idazkiak eskatzailearen identifikazioa eta sinadura jaso beharko ditu, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari bidali beharko zaio, eta 4.1.2. puntuan adierazitako epearen barruan aurkeztuko da Sailaren Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzan. Dena den, Eusko Jaurlaritzak Vitoria-Gasteizen duen egoitza nagusian, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 38.4 artikuluan aurreikusitako bideak ere erabil daitezke.

4.1.1.– Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabidea izenpetzen duenak ikastetxearen legezko ordezkaritza duela egiaztatzeko agiria, zuzenbidearen arabera balioduna.

b) Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzeko agiriak.

c) Zinpeko-aitorpena, honako hau egiaztatzen duena: entitate eskatzaileak ez duela diru-laguntzak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik jaso; ez daukala horretarako legezko inolako debekurik, eta ez dagoela 2.2. artikuluak aipatzen duen kausaren batean sartuta.

d) Egindako kontratazioak erreferentziazko egitasmoaren barruan nola erabiliko dituzten azaltzeko txosten bat.

e) I. eranskina behar den moduan beteta, legezko ordezkariaren identifikazio eta sinadurarekin.

artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.3.– En caso de hallarse incurso en cualquier procedimiento de reintegro o sancionador iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza y que se halle en tramitación la ayuda estará condicionada a la terminación del procedimiento de reintegro o sancionador.

***Artículo 3.***– Acciones subvencionables.

Las ayudas previstas en la presente Orden se destinarán a sufragar el coste de las operaciones y gastos descritos en el anexo I generados entre el 16 de octubre de 2007 y el 10 de septiembre 2008.

En todo caso, se persigue la conformidad de las acciones presentadas por los centros en esta convocatoria con las líneas marcadas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, debido a ello los conceptos objeto de subvención deberán ajustarse a los estándares establecidos en el anexo.

***Artículo 4.***– Solicitudes y documentación.

4.1.– Las solicitudes de subvención de los gastos regulados en la presente convocatoria se formalizarán mediante un escrito, con identificación y firma del o la solicitante, dirigido al Viceconsejero de Administración y Servicios que se presentará, dentro del plazo indicado en el punto 4.1.2 en la Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización del Departamento en la sede central del Gobierno Vasco en Vitoria-Gasteiz o a través de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.1.1.– A dicho escrito de solicitud de subvención se acompañará la siguiente documentación:

a) Documentación válida en derecho en la que se haga constar que el o la firmante de la solicitud ostenta la representación legal del centro.

b) Certificación de estar al corriente de pago de Hacienda y Seguridad Social.

c) Declaración jurada relativa a que la entidad solicitante no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas, ni se halla, asimismo, incursa en prohibición legal alguna que le imposibilite para ello, ni en algunas de las causas a las que hace referencia el artículo 2.2.

d) Memoria explicativa relativa a la utilización de las contrataciones efectuadas en el contexto del proyecto referenciado.

e) Anexo I debidamente cumplimentado que incorporará firma e identificación de la persona que ostente la representación legal.

f) 2007ko urriaren 16tik 2008ko irailaren 10era bitartean egindako gastuen fakturak, eranskinean adierazitako kontzeptuen araberakoak. Ildo horretatik, proforma agiriak eta aurrekontuak ez dira inongo kontzepturen fakturatzat onartuko. Halaber, fakturekin batera argi adierazi behar dira agindu honen I. eranskinean adierazi eta diruz lagundu daitezkeen eragiketen prezioak, ezaugarriak eta zertifikazioak.

4.1.2.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da gastuak diruz laguntzeko eskariak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko azken eguna, berriz, 2008ko irailaren 12a izango da.

4.1.3.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, inprimakian jasotako datu pertsonalak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan sartuko dira.

4.1.4.– Datuak aurkatu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak eta indarreko legeriak pertsona fisiko interesdunei aitortzen dizkien gainerakoak Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzan erabili ahal izango dira (Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

***5. artikulua.–*** Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzak kudeatuko ditu agindu honetan arautzen diren laguntzak.

***6. artikulua.–*** Eskabideetan egin diren hutsak zuzentzea.

Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzak akatsik edo okerrik ikusten badu aurkeztutako eskabidean, eskatzaileari jakinaraziko dio eta 10 eguneko epea eman egin beharreko zuzenketak egiteko. Epe hori igarota, akatsak zuzendu ez badira, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 71.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

***7. artikulua.–*** Balorazio-batzordea.

7.1.– Eskaerak aztertu, sailkatu eta baloratzeko eta diru-laguntzen zenbateko zehatza finkatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da. Batzorde horrek kide hauek izango ditu:

– Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu zuzendaria.

– Ikastetxeen zuzendaria.

f) Se presentarán las facturas de los gastos realizados entre el 16 de octubre de 2007 y el 10 de septiembre de 2008 para los conceptos relacionados en el anexo I. En este sentido, para ninguno de los conceptos serán admitidos como facturas los documentos proforma ni presupuestos. Asimismo las facturas deberán incorporar la identificación tanto del precio como de las especificaciones y certificaciones de las operaciones subvencionables indicados en el anexo I de la presente Orden.

4.1.2.– El plazo de presentación de solicitudes de subvención de los gastos comenzará el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el BOPV siendo el último día para la presentación de solicitudes el 12 de septiembre de 2008.

4.1.3.– De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos de carácter personal que figuran en el formulario pasarán a formar parte del fichero automatizado de datos de carácter personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

4.1.4.– Los derechos de oposición, acceso, rectificación, cancelación y cualesquiera otros reconocidos por la legislación vigente a las personas físicas interesadas se podrán ejercitar ante la Viceconsejería de Universidades e Investigación, sita en la calle Donostia-San Sebastián 1, CP 01010 Vitoria-Gasteiz.

***Artículo 5.–*** Órgano de gestión de las ayudas.

La gestión de las ayudas a que se refiere la presente Orden se hará por la Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización.

***Artículo 6.–*** Subsanación de defectos de la solicitud.

Si la Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, lo comunicará al o a la solicitante concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido la subsanación se le tendrá por desistido/a de su petición, conforme a lo previsto en el artículo 71.1 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 7.–*** Comisión de valoración.

7.1.– Para el estudio, clasificación, valoración de las solicitudes y la determinación de la cuantía exacta de las subvenciones se constituirá una comisión de valoración compuesta por los siguientes miembros:

– El Director de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización.

– El Director de Centros Escolares.

– Ikastetxeen Zuzendaritzako ekipamendu-teknikaria; idazkari izango da; iritzia emango du, baina botorik ez.

7.2.– Batzorde horrek, agindu honetan ezarritako baldintzei jarraiki, ebazpen-proposamena igorriko dio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari. Ebazpen-proposamen horretan ikastetxe onuradunen zerrenda eta bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa azalduko dira.

***8. artikulua.***– Balorazio-irizpideak.

Diru-laguntza 2. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen dituztenen artean banatuko da; nolanahi ere, balorazio-batzordeak irizpide hauek aplikatuko ditu:

a) Agindu honetako I. eranskineko kontzeptuak soilik lagunduko dira diruz.

b) Erositako elementu bakoitzaren kostua zehazteko, agindu honen I. eranskinean adierazitako prozedura erabiliko da, baina beti egongo da gehieneko muga bat: hain zuzen ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eranskin horretan ezarritako prezioak, estandarizazioaren arabera.

c) Laguntzaren xede diren elementuen kopurua inoiz ez da izango agindu honen eranskinean ekipamendu informatikorako finkatu den modulua baino handiagoa.

***9. artikulua.***– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

9.1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila garatzen ari den Intranetaren barruan dauden ikastetxeentzako, laguntzaren zenbatekoa egindako erosketen % 100erainokoa izan daiteke, I. eranskineko 4. eta 5. kontzeptuetan. Gainontzeko kasu eta ikastetxeentzat, berriz, erositakoaren % 50erainokoa izan daiteke diru-laguntza. Agindu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera egingo da kalkulua.

9.2.– Aipatutako balorazio-irizpideak eta mugak aplikatu ondoren, agindu honen bidez emango diren guztirako diru-laguntzak 1.2 artikuluan adierazten diren funtsak baino handiagoak baldin badira, hainbanatu egingo da deialdiaren baldintzak betetzen dituzten onuradunen artean.

***10. artikulua.***– Ebazpena.

10.1.– Balorazio-batzordeak egindako proposamena ikusita, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ematea ebatziko du, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita sei hilabeteko epean. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da interesdunei jakinarazteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikuluari jarraiki.

– El técnico de equipamiento de la Dirección de Centros Escolares, que actuará como secretario con voz pero sin voto.

7.2.– La comisión mencionada conforme a los criterios establecidos en la presente Orden, elevará la propuesta de resolución que contendrá la relación de centros beneficiarios con expresión de las cuantías individuales de la subvención al Viceconsejero de Administración y Servicios.

***Artículo 8.***– Criterios de Valoración.

La subvención se distribuirá entre los/las solicitantes que reúnan los requisitos exigidos en el artículo 2 de acuerdo con los siguientes criterios:

a) Sólo serán subvencionables los conceptos indicados en el anexo I de esta Orden.

b) El coste de cada elemento objeto de compra se determinará según lo especificado en el anexo I de la presente Orden teniendo siempre como límite máximo el precio indicado en el mismo por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en función de su estandarización.

c) El número de elementos objeto de la ayuda en ningún caso será superior al módulo de equipamiento informático fijado en el anexo de la presente Orden.

***Artículo 9.***– Cuantía de la ayuda.

9.1.– En el caso de los centros que ya estuvieran integrados en la intranet que desarrolla el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, la cuantía individualizada de la ayuda podrá alcanzar el 100% del montante del gasto efectuado para los conceptos 4 y 5 del anexo I. Para el resto de los casos y centros la cuantía de la subvención podrá llegar a ser el 50% del montante de la compra realizada. El cálculo será realizado conforme a los criterios de valoración establecidos en la presente Orden.

9.2.– Si el importe total de las subvenciones a conceder, una vez aplicados los criterios y límites señalados, supera el crédito presupuestario disponible indicado en el artículo 1.2 se procederá al prorrateo entre los beneficiarios que cumplan los requisitos de la convocatoria.

***Artículo 10.***– Resolución.

10.1.– A la vista de la propuesta de la Comisión de Valoración, el Viceconsejero de Administración y Servicios resolverá la concesión de las ayudas previstas en la presente convocatoria en un plazo de seis meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden. Dicha Resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco a efectos de notificación a los interesados/as según lo previsto en el artículo 59.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Epe horren barruan ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsi egin direla ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera ezarritako ondorioetarako. Dena den, lege horrek administrazioari berariaz ebazteko obligazioa ezartzen ez dio.

10.2.– Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta beraren aurka interesdunek gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan aurreikusitako epean eta eran.

***11. artikulua.–*** Diru-laguntzen ordainketa.

Diru-laguntza dena batera ordainduko da, ebazpena argitaratu eta 14.a) artikuluan ezarritako epea amaitu ondoren, baldin eta onuradunak espresuki diru-laguntzari uko egiten ez badio epe horretan.

***12. artikulua.–*** Laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste instituzio publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gain-finantzaketarik izanez gero, diru-laguntza behar den gehieneko mugaraino murriztuko da.

***13. artikulua.–*** Ez betetzeak.

Diru-laguntza emateko baldintzaren bat bete ez dela egiaztatzen bada, jasotako diru-kopuruak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli beharko dira, arau bi hauen arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legea -azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaz onartua- eta abenduaren 17ko 698/1991 Errege Dekretua.

***14. artikulua.–*** Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzaren onuradunek betekizun hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horretarako, diru-laguntzaren esleipena EHAAn argitaratzen den egunean hasi eta hamabost eguneko epea dute ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiteko. Bestela, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza eman den xede zehatz horretarako erabiltzea. Hori dela eta, diru-laguntzak benetan zertara bideratu diren egiaztatzeko ahalmena izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Si transcurrido el plazo señalado no se ha publicado Resolución alguna, los/as solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes, sin perjuicio de la obligación de resolver expresamente que corresponde a la Administración según la citada Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

10.2.– Contra la Resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios, que no agota la vía administrativa, podrán los/as interesados/as interponer recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación en el tiempo y forma previstos en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 11.–*** Pago de la subvención.

El pago de la subvención concedida a los beneficiarios, se efectuará en un único libramiento, cuando tras la publicación de la resolución adoptada haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 14.a) sin mediar renuncia expresa por su parte.

***Artículo 12.–*** Compatibilidad de las ayudas.

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo un mismo fin pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

***Artículo 13.–*** Incumplimiento.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaren la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, Texto Refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de noviembre y el Real Decreto 698/1991 de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

***Artículo 14.–*** Obligaciones de los beneficiarios.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas por la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días desde la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Resolución de la convocatoria, los beneficiarios no renunciaran expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida. A tal efecto, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se reserva la facultad de comprobar el efectivo destino de las subvenciones.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak -diru-laguntzen inguruko egitekoak dituztenez- eskatzen dieten beste agiri eman beharko diete.

***15. artikulua.***– Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako edozein aldatzen bada, eta, betiere, diru-laguntza horrekin batera, helburu berberetarako, beste edozein erakunde publiko edo pribatuk emandako laguntzak edo diru-laguntzak jaso badira, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da, onuradun izateko gutxieneko baldintzei eusten bazaie, behintzat.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta beraren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

***Bigarrena.***– Agindu honetan prozedurari buruz arautu gabe geratu diren alderdiei Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko zaie.

***Hirugarrena.***– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 21a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

***Artículo 15.***– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de la concesión de las subvenciones, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos para ser beneficiario.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, se podrá interponer con carácter potestativo un recurso de reposición ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a contar a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV o un recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

***Segunda.***– En todo lo no regulado en la presente Orden, en materia procedimental, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Tercera.***– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de mayo de 2008.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

ERANSKINA/*ANEXO*

DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO INPRIMAKIA / *IMPRESO PARA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN*

Izena/*Nombre* ........................................................................................................................ NAN/*DNI* ......................

Behean adierazitako ikastetxearen titularrak edo legezko ordezkariak (ezabatu egokia ez dena) eta notarioaren edo beste batzuen (adierazi zein) .............................. aurrean, ...............(e)an emandako ordezkatzeko ahalordea indarrean duenak

*Como titular/representante legal (táchese lo que no proceda) y poder de representación actualmente en vigor y otorgado con fecha ........ ante notario/(otros indicar cual ..........................................................................................................................................)*

Ikastetxe itundua / *Del centro concertado* ..........................................................................................................................
Ikastetxearen Udalerria / *Municipio del centro* ....................................................................................................................
Ikastetxearen IFK / *CIF centro* ..............................................................................................................................................
Ikastetxearen kodea (6 digitu) / *Código (6 dígitos)* ..............................................................................................................

ESKATZEN DU / *SOLICITA*:

Hurrengo kontzeptuetan egindako gastuak finantzatzeko diru-laguntza / *Subvención para financiar el gasto efectuado en los siguientes conceptos:*

| Kontzeptua<br><br>*Concepto* | Ale kopurua<br><br>*N.º unid* | Unitateko prezioa<br>*P. unitario* | P. guztira<br><br>*P. total* | Fakturaren zenbakia<br>*N.º factura* | Faktura data<br><br>*Periodo factura* | Zuzkitzailea<br><br>*Proveedor* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.– LAN zerbitzaria (1) / *Servidor LAN (1)* | | | | | | |
| 2.– Ordenagailua (2) / *Ordenador (2)* | | | | | | |
| 3.– Sare puntuak (3) / *Puntos de red (3)* | | | | | | |
| 4.– Intranetera lotzeko operazioak. Sailak ezarritako estandarren arabera (4) / *Operaciones de conexión a la intranet según estándares del Departamento (4)* | | | | | | |
| 5.– Intranetaren domeinuan egindako linea-kontsumoa (intranetera sartzeko zerbitzuaren kostua) (5) / *Consumo de línea bajo dominio de la intranet (coste del servicio de acceso a la intranet) (5)* | | | | | | |

Diruz lagunduko diren ezaugarri teknikoak, prezioa eta ale kopuruak / *Características técnicas, precio y unidades subvencionables:*

(1)

LAN Zerbitzaria: Intel Xeon edo baliokidea
Gehienezko unitateko prezioa: 3.500 euro, BEZ, garraioa eta instalazioa barne direla.
Deialdi honetan diruz laguntzeko gehienezko unitate kopurua: 1.

*Servidor LAN: Intel Xeon o equivalente.*
*Precio límite unitario: 3.500 euros IVA, transporte e instalación incluido.*
*Numero máximo de unidades subvencionables esta convocatoria: 1.*

(2)

Ordenagailu eramangarria edo mahaigainekoa: Intel Centrino teknologiaduna edo Pentium M edo baliokidea.
Gehienezko unitateko prezioa: 1.200 euro, BEZ, garraioa eta instalazioa barne direla.
Deialdi honetan diruz laguntzeko gehienezko unitate kopurua: 8 unitate + 1 bost gela intunduko edo frakzioko.

*Ordenador sobremesa o portátil: Intel Centrino o Pentium M o equivalente.*
*Precio unitario máximo: 1.200 euros IVA, transporte e instalación incluido.*
*Número máximo unidades subvencionables esta convocatoria: 8 unidades + 1 por cada 5 aulas concertadas o fracción.*

(3)

Sare lokalaren puntuak: UTP kablea, gutxienez 5e kategoriakoa. Hona sare puntu baten definizioa: esteka egiten den tokitik sistemaren rack jakin bateko banaketa paneleraino behar den sistema guztia. Puntuak beti izango du 5e kategoria edo handiagoko RJ-45 konexioa. Sare-puntuak ISO/IEC11801 arauaren edo baliokidearen araberako zertifikazioa behar du. Honela kalkulatuko da sare puntu bakoitzaren unitateko prezioa: sarearen kostua (instalatu den sarearen errosetak, kablea, latigilloak eta kanaletak kontuan harturik) zati sarearen puntu-kopurua eginez.
Onar daitekeen gehienezko prezioa: 210 euro, BEZa, garraioa eta instalazioa barne direla.
Onar daitezkeen unitateen kopurua: 8 unitate + 1 bost gela intundu edo frakzioko.

*Puntos de red local: cable UTP categoría 5e o superior. Se entiende como punto de red a todo el sistema necesario desde la ubicación del punto de conexión hasta el panel de distribución correspondiente de un rack determinado del sistema. Este punto siempre contará con conexión RJ-45 categoría 5e o superior. El punto de red debe estar certificado según norma ISO/IEC11801 o equivalente y su precio unitario será obtenido dividiendo el coste de rosetas, cable, latiguillos, canaletas de la red instalada entre el número de puntos.*
*Precio límite unitario: 210 euros IVA, transporte e instalación incluido.*
*Número máximo de unidades: 8 unidades + 1 por cada 5 aulas concertadas o fracción.*

(4)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organo eskudunaren Ebazpenaren edo Aginduaren bidez Saila garatzen ari den intranetera sartzeko onartutako ikastetxeentzat soilik, baldin eta sare horretatik kanpo ateratzera eragin liezaiekeen edozein prozeduratan sartuta ez badaude eta sarera lotzeko operario horiek Agindu honetako hirugarren artikuluan adierazitako epe diruz-lagungarrian egindakoak izan badira.

Intranetera lotzeko operazioak eta beren fakturazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko telekomunikazio-operadore homologatuak egin behar ditu, betiere arlo publikoko ikastetxeetan erabiltzen diren ezaugarriak betez. Diruz lagunduko diren kostuak hauek dira: alta ematea, konfigurazioak, birusen aurkako elementu aktiboak eta segurtasnunekoak instalatzea, baita informazio txarra edo ezegokia bereizteko elementuak ere.
Diruz lagundu daitekeen gehienezko unitateko prezioa: 6.000 euro, BEZ barne.
Diruz lagundu daitekeen gehieneko unitate-kopurua: 1.

*Sólo para los centros admitidos para su integración en la intranet que desarrolla el Departamento mediante Resolución u Orden expresa del órgano competente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación siempre que no se hallen incursos en alguna causa que pudiera provocar su salida de la misma y en el caso de que se hubieran realizado dichas operaciones en el periodo subvencionable establecido en el artículo 3 de la presente Orden.*

*Estas operaciones deberán ser realizadas y facturadas a través del operador de telecomunicaciones homologado del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en términos homogéneos a los utilizados en los centros públicos. Se subvencionaran los costes generados por el alta de línea, configuraciones, instalación de elementos activos y de seguridad ante virus y para discriminación de información mala o impertinente.*
*Precio unitario máximo subvencionable: 6.000 euros IVA incluido.*
*Número máximo de unidades subvencionables: 1.*

(5)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organo eskudunaren Ebazpenaren edo Aginduaren bidez Saila garatzen ari den intranetera sartzeko onartutako ikastetxeentzat soilik, baldin eta sare horretatik kanpo ateratzera eragin liezaiekeen edozein prozeduratan sartuta ez badaude eta sarera lotzeko operario horiek agindu honetako hirugarren artikuluan adierazitako epe diruz-lagungarrian egindakoak izan badira.
Kontzeptu honi dagokio: ikastetxea intranetean integratu denetik kontatzen hasita, operadore homologatuak intranetera sartzeko zerbitzua emateagatik fakturatu duen gastuari.
Gehienezko gastua: 1.432,8 euro, BEZ.

*Sólo para los centros que ya estuvieran admitidos para ser integrados en la intranet que desarrolla el Departamento mediante Resolución u Orden expresa del órgano competente del Departamento de Educación, universidades e Investigación siempre que no se hallen incursos en alguna causa que pudiera provocar su salida de la misma y en el caso de que se hubiera producido dicho gasto en el periodo subvencionable establecido en el artículo 3 de la presente Orden.*
*Este concepto corresponde al coste facturado por el operador homologado por la prestación del servicio de acceso a la intranet a partir de la integración del centro en la misma.*
*Gasto máximo: 1.432,8 euros IVA incluido.*

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEARI ZUZENDUTAKO IDATZIA.
*SOLICITUD DIRIGIDA AL ILMO. SR. VICECONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN*

**3787**

EBAZPENA, 2008ko maiatzaren 28koa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, hezkuntza administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa arautzen duen aginduko zenbatekoa handitzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren, 2007ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez hezkuntza administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa arautzen da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa horretarako izendatutako guztirako zenbatekoa

**3787**

RESOLUCIÓN de 28 de mayo de 2008, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se amplía el importe de la Orden por la que se regula la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la administración educativa.

Mediante la Orden de 14 de noviembre de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se regula la financiación de los gastos destinados para la adecuación de centros docentes públicos de titularidad municipal afectos al sistema educativo.

Revisado el importe total dedicado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación a